

Agur:

**Zutik 43** — Gaur eman dit Leunda'k Markos'ek neretzako emandako alea. Betiko leloak, baiña muiña hau izaki: Euskal Herrian ez dago nazio-hauzirik. Euskal Herria'k utzi egin behar ditu zatiketa horiek. "Zutik", hortara, 32-garren zenbakitik aurrera, españolismoaren defendatzaile porrokatua da. Ez du atakatu ere egiten: ez-ikusia egiten du, Euskal Herri'ko problema nagusiari ez-ikusia egiten dio Euskal Herria'ren izenean... "Movimiento de Liberación Nacional" baten izenean liberazio nazionalik egin beharrik ez dagoela esaten du... Hobe dugu, urrundik, "La Gaceta del Norte" Zutik baiño. Benetan!

Txinazaleen dokumentuaz; bidaldu ahal duzute bestaldera?

Agustin — Venezuela'ra iritxi da. "Zutik" ateratzeko erabakia hartu du, nola edo hala. Artikuluak eskatu ditu. Berririk gabe daudela dio, eta arren bidaltzeko.

Jose Manu Agirre — Hemendik hiru astetara-edo hemen izango bide da. Joan aurretik ongi utziko du Mexiko'ko arazoa. Hau da lehenengo etarra Ameriketatik itzultzen. Agian beste batzuk jarraituko!

Barrutik berri txarrak datoz, baiñan onak ere bai. Erakunde abertzale eta ezkertar baten aintzindariak izututa daude "Fernández" eta "C"ren joera ikusita. "Sutan" bide daude.

Egin behar dana — Nere ustez garbi dago: "Fernández" eta mordo hori ez dira ETA, anti-ETA hutsa baizik. Ondorioak guztiz atara; eta horren arabera joka. Orti maiz ikusten dut: edozer gerta ere, batasuna egin behar da okertze hau arras zapaltzeko. Dударik gabe hau ez da istillurik gabe pasako, "Fernández"ek eta horiek ez baitute inola ere atzera egingo. Istillu gogorra datorren ezkerre, bat egin behar dugu abertzaleok Ejekutiboaren kontra. Eta zapaldu bezin laister ETA berriz organizatu, gaurko egiaren arabera. Hasarretzea etsaiei iskillu bat ematea litzake; bai "marxista-leninistak" eta bai marxista-leninista ez geranok EGINKIZUN BAKAR BAT DUGU GAUR; Euzkadi'ren askatasuna. Hortaz kanpo, zernahi esanik ere, sozialistak gera danok. Abertzaletasuna gidari, baiña errerealismoa ere ez gutxiago, eraberritu egin behar dugu ETA beste molde batera, eta ETA-Frente berriak behar bada hobe beteko du eginkizuna orain arte baiño. Agian!

Besarkada bat denoi

Jean

W.L/ 49

W. 1966-X-17

Agur :

**Zutik 43** - Gaur eman dit Leunda'k Markos'ek neretzako emandako alea. Betiko leloak, baiña muiña hau izaki: Euskal Herria ez dago nazio-hauzirik. Euskal Herria'k utzi egin behar ditu zatiketa horiek. "Zutik", hortara, 32-garren zenbakitik aurrera, españolismoaren defendatzaile porrokatua da. Ez du atakatu ere egiten: ez-ikusia egiten du, Euskal Herri'ko problema nagusiari ez-ikusia egiten dio Euskal Herria'ren izenean... "Movimiento de Liberación Nacional" baten izenean liberazio nazionalik egin beharrik ez dagoela esaten du... Hobe dugu, urrundik, "La Gaceta del Norte" Zutik baiño. Benetan!

Txinazaleen dokumentuaz: bidaldu ahal duzute bestaldera?

Agustin - Venezuela'ra iritxi da. "Zutik" ateratzeko erabakia hartu du, nola edo hala. Artikuluak eskatu ditu. Berririk gabe daudela dio, eta arren bidaltzeko.

Jose Manu Agirre - Hemendik hiru astetara-edo hemen izango bide da. Joan aurretik ongi utziko du Mexiko'ko arazoa. Hau da lehenengo etarra Ameriketatik itzultzen. Agian beste batzuk jarraituko!

Barrutik berri txarrak datoz, baiñan onak ere bai. Erakunde abertzale eta ezkertar baten aintzindariak izututa daude "Fernández" eta "C"ren joera ikusita. "Sutan" bide daude.

Egin behar dana - Nere ustez garbi dago: "Fernández" eta mordo hori ez dira ETA, anti-ETA hutsa baizik. Ondorioak guztiz atara; eta horren arabera joka. Orti maiz ikusten dut: edozer gerta ere, batasuna egin behar da okertze hau arras zapaltzeko. Dударik gabe hau ez da istillurik gabe pasako, "Fernández"ek eta horiek ez baitute inola ere atzera egingo. Istillu gogorra datorren ezkerre, bat egin behar dugu abertzaleok Ejekutiboaren kontra. Eta zapaldu bezin laister ETA berriz organizatu, gaurko egiaren arabera. Hasarretzea etsaiei iskillu bat ematea litzake; bai "marxista-leninistak" eta bai marxista-leninista ez geranok EGINKIZUN BAKAR BAT DUGU GAUR; Euzkadi'ren askatasuna. Hortaz kanpo, zernahi esanik ere, sozialistak gera danok. Abertzaletasuna gidari, baiña errerealismoa ere ez gutxiago, eraberritu egin behar dugu ETA beste molde batera, eta ETA-Frente berriak behar bada hobe beteko du eginkizuna orain arte baiño. Agian!

Besarkada bat denoi

Jean